

## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK:**

**Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Bezeroarekiko harremana ona eta baliagarria izateko gure ustetan aurrera eraman behar dugun lehen ideia erosotasuna betetzea da. Horretarako, harremana pertsonala eta zerbitzu automatizatukoa izatea erabaki dugu, hau da, webgune bidezkoa izango da, bezeroek haien eskakizunak edo haiek nahi duten produktua denda fisiko batera joan gabe erosi ahal izango dute eta bertan gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, edozein zalantza edo arazo dutela adierazteko. Honen aurrean, gu bezeroarekin harremanetan jarriko gara posta elektronikoko edo telefono zenbaki baten bidez.

Hau guztiaz gain, bezeroak erabateko erosotasuna izan dezan autozerbitzua eta horretarako laguntza eskainiko diegu.

Gainera, bezero berriak erakartzeko sare sozialetan gure webgubnearen hainbat publizitate kanpainia eta hainbat komunikazio kanaletan publizitatea egingo dugu. Aldiz, ditugun bezeroak mantentzeko haiei enpresako parte direla sentitzea egingo diegu, zehatzago esanda, haien proposamenak eta erakarpenak kontuan hartuko ditugu produktua eta enpresa denon artean hobetzeko.

